

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Onestea Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargin lanpostuko aldi baterako ordezkapenak egiteko eta lanpostuarekin lotutako lan beharrian puntualak betetzeko lan poltsa sortzeko deialdia arautuko duten oinarriak

Udal honetako tokiko gobernu batzarrak, 2024ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen onestea Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargin lanpostuko aldi baterako ordezkapenak egiteko eta lanpostuarekin lotutako lan beharrian puntualak betetzeko lan poltsa sortzeko deialdia arautuko duten oinarriak.

Deialdia arautzen duten oinarriak eransten dira:

Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargin lanpostuko aldi baterako ordezkapenak egiteko eta lanpostuarekin lotutako lan beharrian puntualak betetzeko lan poltsa sortzeko deialdia arautuko duten oinarriak.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da lan poltsa bat sortzea Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargin lanpostuko aldi baterako ordezkapenak egiteko eta lanpostuarekin lotutako lan beharrian puntualak betetzeko.

Dulantziko ikastetxeko mantentze lanetarako langilearen lanpostuak 2. hizkuntza eskakizuna du esleituta, eta derrigortasun data igarota.

Bete beharreko lanpostuaren arabera LPZn ezarritako lanbide talde eta mailari dagozkion soldata, aparteko ordainsariak eta gainerako ordainsari osagarriak ditu Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargin lanpostuak.

Bigarrena. Lanpostuen ezaugarriak

Lanpostuen eginkizunak, egitekoak, rolak eta bestelako ezaugarriak eranskinetan zehaztuko dira, hautagaien informaziorako eta hautaketa prozesua ebaluatzeko irizpideen oinarri gisa erabiltzeko.

Lanaldia Dulantziko Udalak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuen izaera eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Hirugarrena. Hautagaien betebeharrak

Onartuak izateko, eta hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte hautagaiek:

Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bananduta ez badaude, bai eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —baldin eta ezkontideak legez bereizita ez badaude—. Ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela gurasoen kontura bizi.

Era berean, aurreko paragrafoetan jaso ez diren atzerriko pertsonen ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta espainiar estatuan bizi badira. Hautatzen badituzte, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio baimena dutela egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatu baino lehen.

Gutxienez hamasei urte beteta eta gehienez ere nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina izatea.

Oinarrizko ikasketen ziurtagiria edo baliokidea edukitzea, edo hura lortzeko eskubideak ordaindu izana.

Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

Euskararen ezagutza: 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta, edo, egiaztatu gabe balego, eska-tzaileak azterketak egin, eta gero egiaztatu ahal izango du eskakizuna, lan poltsan sartzeko.

Diziplina espediente bidez inongo administrazio publikotatik baztertua izan ez izana, eta egin-kizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.

Eskuratu nahi den lanpostuari dagozkion zereginak normaltasunez betetzeko behar diren gaitasun funtzionalak edukitzea, eta gauzatu behar diren eginkizunak eta zerbitzuak normal-tasunez betetzea eragozten duen edo horrekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dira betekizun guztiak, eta oinarrietan ezarritako unean edo horretarako eskatzen den beste edozein unetan egiaztatu beharko dira.

Laugarrena. Eskaerak

Hautaketa proba hauetan parte hartzeko eskaerak oinarri hauen II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera izan behar dira.

Eskaerak izapidetzean, izangaiek honako hauek eduki beharko dituzte kontuan:

Eskaerak, behar bezala beteta, Dulantziko Udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio.

Eskatzaile guztiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte eskaera aurkezteko garaian:

NANaren fotokopia.

Gainera, bigarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da, alegia, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkun-tzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekre-tuak jasotzen dituen tituluetakoren bat aurkeztu beharko da.

Eskaeran alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopia, balioetsiak izan daitezen.

Eskaeretan, izangaiek adierazi beharko dute deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

Eskaerak aurkezteko epea: hoge (20) egun baliodun, dagokion deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Eskaerak udal honen erregistro orokorrean aurkeztu daitezke, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan. Posta bulegoetan aurkeztutako eskaerak, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotakoarekin, gutun azal irekian aurkeztu behar dira, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezazkien,

eskaerak aurkezteko epearen barruan ziurtatu baino lehen. Hala eginez gero soilik ulertuko da eskaerak posta bulegoan entregatu ziren datan sartu direla udalaren erregistro orokorrean. Eskaera da zigilaturik egon behar dena.

Interesdunek erregistro telematikoan (<https://alegria-dulantzi.egoitzaelektronikoa.eus/?x=Q-Vqr-Q5r9TvJterbGKq3WA>) aurkeztu ahalko dute eskaera, sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoko kualifikatuetan oinarritutako sistemak erabiliz.

Bosgarrena. Izangaiak onartzea

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak deialdian onartu diren eskaeren eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du, bai eta baztertzeko arrazoiak ere, eta argitara emango dira Dulantziko Udalaren iragarki taulan eta haren web orrian, eta egoki diren alegazioak egiteko 3 egun balioduneko epea emango du.

Erreklamaziorik aurkezten bada, alkatearen ebazpen bidez baietsi edo ezetsiko dira. Ebazpen horrek behin betiko bihurtuko du behin-behineko zerrenda, eta Dulantziko Udalaren iragarki taulan eta haren web orrian argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira zuzenean.

Onartutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera, epaimahai kalifikatzaileko kide titularren eta ordezkoen zerrenda ere argitaratuko da.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Hauek izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Vanessa Domínguez Casal.

Ordezkoa: Marta Ramírez Gómez.

Bokalak: Pedro María Sáez de Maturana Gallardo.

Ordezkoa: Juan José Alburquerque Gajate.

Batzordekidea: Patricia Álvarez Lavín.

Ordezkoa: María Teresa Martínez de Marañón Noriaga.

Idazkaria: Inmaculada Galerón Iglesias.

Ordezkoa: Fernando Alonso Puente.

Epaimahaiak aholkulariak erabili ahal izango ditu hautaketa prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako.

Epaimahaiko kideek ez dute esku hartuko eta udaleko alkateari jakinaraziko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada. Izangaiak epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan jasotako arrazoren bat bada.

Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, ez baitu botorik izango.

Epaimahaiaren erabakiak bertan dauden botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakari diharduenaren botoak ebatziko du.

Epaimahaia ordezkoek ere osatuko dute.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta ezingo du jardun, kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, ez baldin badago.

Zazpigarrena. Hautaketa prozesuaren hasiera eta garapena

Izangaiek lan poltsetan izango duten hurrenkera zehazteko sistema merezimenduen lehia-keta izango da. Honako baremo honen arabera baloratuko dira merezimenduak:

Oposizio aldia:

Lehenengo ariketa. Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Zenbait galderari erantzun beharko zaie idatziz lanpostuaren eginkizunei buruzko hautazko erantzunekin.

Otik 50era puntuatuko da eta 25 puntu beharko dira gainditzeko.

Oposizioa epaimahaikideek emandako puntuazioen batuketaz kalifikatuko da, guztirakoa kide kopuruaz zatitu, eta zatidura ariketa bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da.

Bigarren ariketa. Euskara egiaztatzea.

Ez da hizkuntza eskakizunik egiaztatzeke azterketarik egingo.

Euskarazko ezaguerak eskaeran alegatu beharko dira. Data horretan eskakizuna egiaztatuta ez baleuka, eskatzaileak hautaketa prozesuaren amaieran egiaztatu ahal izango du, lan poltsan sartzeko.

Ez dituzte ezaguera horiek alegatu beharko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren hizkuntza eskakizunen erregistroan hizkuntza eskakizun horren egiaztagiraren titular izena emanda dauden izangaiek; egiaztagiri hori eskaera aurkezteko epea amaitu aurreko datakoa bada.

Halaber, euskararen ezaguerari buruzko titulu eta ziurtagiriak baliozkotzeari buruzko araudia-ren arabera, euskararen ezagueraren baldintza egiaztatuta izango dute ordenamendu juridikoak HAEEn emandako 2., 3. eta 4. hizkuntza eskakizunekiko baliokidetasuna ematen dien titulu edo ziurtagirietakoren bat daukatenean.

Hori guztia, titulua edo ziurtagiria edukitzea hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran alegatu bada eta deialdi honetan baliokidetasuna balioarazi nahi zaion titulu edo ziurtagiria eska-bideak aurkezteko epea amaitu aurreko data batean lortu bada.

HAEEn emandako hizkuntza eskakizunen baliokide den titulu edo ziurtagiri bat edukitzea egiaztatzeko:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako irakasleen eremuko hizkuntza eskakizunean datzan titulu edo ziurtagiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialen euskarako gaitasun agiria, Osakidetzaren eremuko hizkuntza eskakizun bat, Ertzaintzaren hizkuntza eskakizun bat, edo Kultura Sailak helduentzako euskararen irakaskuntzarako oinarrizko curriculumak ezartzen duen euskararen ezaguera mailak egiaztatzeari buruz emandako ziurtagiri bat alegatu bada, aukera hauek izango dituzte izangaiek:

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari berariazko baimena ematea erregistroetan sartzeko, egindako alegazioa zehatza dela egiaztatu eta hautaketa prozesuan titulu edo ziurtagiri hori aurkeztu beharrik ez izateko.

Baimen hori berariaz ez ematea eta, horretarako ezarritako epean, alegatutako titulu edo ziurtagiria daukatela egiaztatzea.

Alegatutako titulu edo ziurtagiriari dagozkion euskararen ezaguerak arestiko a) letran adierazitakoak ez badira, horretarako ezarritako epean, titulu edo ziurtagiri hori daukatela egiaztatu beharko dute.

Lehiaketa aldia:

Oposizio aldia gainditzen duten izangaiak lehiaketa aldira pasako dira.

Epaimahaiak meritu hauek balioetsiko ditu, eskaeran alegatu eta behar bezala egiaztatu badira.

1. Administrazio publikoan, LT taldeari dagozkion eginkizunak betez, antzeko lanpostuetan egindako zerbitzuengatik, baldin eta lanpostu horietako eginkizunak bat badatoz iragarritako lanpostuarekin: 5 puntu egiaztaturiko urte edo urte zati bakoitzeko. Gehienez ere 25 puntu. Epe laburragoak hilabeteka hainbanatuko dira.

Toki korporazioetan eta administrazio publikoetan izandako esperientzia egiaztatzeko, egindako zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko da, administrazio bakoitzak horretarako duen ereduari jarraituz. Hala ere, emandako zerbitzuen kidegoa edo eskala, azpieskala eta mota edo kategoria zehaztu beharko dira.

2. Enpresa pribatuan, antzeko lanpostuetan egindako zerbitzuengatik: 5 puntu egiaztaturiko urte edo urte zati bakoitzeko. Gehienez ere 25 puntu. Epe laburragoak hilabeteka hainbanatuko dira.

Enpresa pribatuan izandako esperientzia egiaztatzeko, "lan bizitzaren ziurtagiria" aurkeztu beharko da, puntuak zenbatzeko behar diren datu guztiak argi eta garbi agertzen badira, lanbide kategoria edo egindako lan mota barne. Bestela, zerbitzuak eman diren enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta betetako lanpostua, jardun denbora eta gauzatutako eginkizunak jaso beharko ditu.

3. Honako gai hauetan espezializatzeko ikastaroak, betiere lanpostuko eginkizunekin zerkusia badute:

Igeltserotza: 0,5 puntu 60 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.

Iturgintza: 0,5 puntu 60 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.

Elektrizitatea: 0,5 puntu 60 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.

Lorezaintza: 0,5 puntu 60 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.

Arotzeria: 0,5 puntu 60 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.

Ikastaroak egiaztatzeko, zentro edo erakunde akreditatuak emandako gainditze ziurtagiria edo dagokion titulua aurkeztu beharko da.

Lehiaketan lor daitekeen gehieneko kalifikazioa 50 puntu da.

Zortzigarrena. Behin betiko kalifikazioa, puntuazioak argitaratzea eta lan poltsak osatzea

Hautaketa prozesua osatzen duten merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak argitara emango ditu izangai bakoitzaren behin betiko kalifikazioa eta puntuazio hurrenkera, prozesuan (oposizio-lehiaketan) puntu gehien lortu duenetik puntu gutxien lortu duenera ordenaturik. Halaber, lan poltsak osatzeko proposamena egingo du, eta alkateari igorriko dio.

Bederatzigarrena. Poltsen funtzionamendua

Lan poltsak zein kasutan erabil daitezkeen.

Aldi baterako enplegu programetarako balioko du.

Langile lan kontratudunen lanpostu hutsak, oporrak eta bajak betetzeko balioko du.

Aldi baterako programak betetzeko aldi baterako langile lan kontratudunak izendatzeko erabili ahal izango da. Izendapena egitean aurreikusten den programaren amaiera data zehaztu beharko da, bai eta amaiera zehazteko inguruabarrak eta izendapena egitera behartzen dutenak ere.

Zein egoeratan egon daitezkeen lan poltsako partaideak.

Lanerako prest: ez dabil zerbitzuak ematen Dulantziko Udalean.

Lanean: zerbitzuak ematen ari da Dulantziko Udalaren eremuan. Egoera horretan dauden langileak, zerbitzuak ematen amaitzen dutenean, "lanerako prest" egoerara igaroko dira eta, ondorioz, lan eskaintzak jaso ahal izango dituzte.

Aldi baterako baja: egoera honetara igaroko dira, idatziz eskatuz gero, honako hauek:

Aldi baterako ezintasun egoeran daudenak edo amatasun, aitatasun edo lana eta familia uztartzeko lizentzia dutela egiaztatzen dutenak.

Dulantziko Udalaren eremutik kanpo lanean ari direnak, 15 eguneko epean justifikatzen badute.

Behar bezala justifikatutako kausak alegatzen dituztenak. Alkatetzari dagokio haiek baloratzea.

Aldi baterako baja egoerara igaroarazi zuen kausa amaitutakoan, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio Dulantziko Udalari 10 eguneko epean eta egiaztariak erantsi beharko ditu.

4. Behin betiko baja: hauek igaroko dira egoera horretara:

Borondatez eskatzen dutenak.

Dulantziko Udalarekiko enplegu harremanean borondatez baja hartzen dutenak.

15 eguneko epean aldi baterako baja egoerara igaroarazi duen kausaren egiaztagiririk aurkeztu ez dutenak eta epe horretan aldi baterako baja egoera amaitu dela jakinarazi edo egiaztatzen ez dutenak.

Helbide edo telefono aldaketa ez jakinarazteagatik ezin aurkituzko egoeran alta ematen zaienak eta egoera horretan hiru hilabetetik gora dirautenak.

Eskainitako lana onartzen ez dutenak edo onartu ondoren izendatzeko eskatutako titulu baldintzak betetzen ez dituztenak.

Onartutako lana eskainitako besteategatik uzten dutenak, egiten ari ziren lana 15 egunetik beherakoa izan eta eskaintza berria 3 hiletik gora izan ezean.

Edozein kasutan behin betiko baja lan poltsan baino ez da gertatuko.

5. Ezin aurkituzkoa: langile zerbitzuak alta emango die ofizioz egoera horretan helbide edo telefono aldaketa jakinarazi ez izanagatik telegramei edo egiten zaizkien telefono deiei erantzuten ez dietenei. Egoera horretan ez da batere lan eskaintzarik egingo.

Zehapen prozedura.

Funtzionarioa edo langile lan kontratuduna dagokion poltsatik baztertzeko edo behin betiko baja emateko eskatu ahal izango du alkateak, Euskal Funtzio Publikoaren Legean astun edo oso astun gisa tipifikatutako hutsegiteengatik.

Zehapen prozedura horretan, interesdunaren eskubideak bermatuko dira eta, betiere, entzualdia emango zaio interesdunari, eta langileen ordezkariak ere entzungo zaie.

Deitzeko irizpideak.

Lan poltsaren hautaketa prozesuan ezarritako ordenaren arabera deituko da.

Deitutako pertsonak 24 orduko epean eskainitako lana onartuko ez balu, behin betiko baja egoerara igaroko da poltsan, behar bezala justifikatu eta alkatetzak ontzat emandako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Salbuespena lan poltsaren deitzeko ordenan.

Pertsona batek postu jakin batean lan egin badu eta 4 hilabete igaro aurretik postu hori bete behar bada, pertsona bera izendatu ahal izango da, poltsan "lanerako prest" egoeran badago.

Kontratuen baldintzak.

Hautagai guztiek probaldi bat gainditu beharko dute, kontratuaren iraupenaren arabera eta gehienez 15 eguneko.

Probaldia amaituta, zerbitzuaren arduradunak edo langileen buruak txostena egingo du, eta epaimahaiak ebaluatuko du. Lan poltsatik baztertua ekarri ahal izango du txosten horrek.

Ezingo da inolaz ere langile lan kontratudun finko bihurtu oinarri hauetan ezarritako hautaketa irizpideak aplikatzeagatik.

Lan poltsaren indarraldia.

Indarraldia lan poltsari dagokiona izango da.

Hamargarrena. Gorabeherak

Deialdia, haren oinarriak eta hautaketa organo teknikoaren edo epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintzak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduan eta epeetan.

Alegria-Dulantzi, 2024ko ekainaren 12a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA

I. eranskina**Eskaera eredu**

Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargina aldi baterako kontratatzeko lan poltsa handitzeko onartze eskaera.

Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

Jaiotze data sorlekua

Probintzia, adin nagusikoa, zenbakiko NANA duena.

Telefonoa; helbidea

Lurraldea posta kodea

Posta elektronikoa

Agertu eta, dagokion moduan, honako hau adierazten dut:

Dulantziko ikastetxe publikoko mantentze lanetarako behargina aldi baterako kontratatzeko lan poltsa sortzeko deialdian onartua izateko eskatzen dudala.

Karguaren zereginak betetzeko gaitasun funtzionala daukadala.

Ez daukadala indarrean dauden lege xedapenetan ezartzen diren ezintasunetako bat ere.

Ez nautela diziplina espediente bidez administrazio publikoen zerbitzutik bereizi, eta ez nago-ela desgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Deialdiko bigarren oinarrian adierazten den titulazioa daukadala, eta eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala.

Eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

NANaren fotokopia eransten dut.

Euskarako 2. HEren egiaztagiraren kopia eransten dut.

Lehiaketa aldiari lotutako agiri hauek eransten ditut:

.....
.....

Hau eskatzen dut

Hautaketa prozesuan onar nazatela.

.....(e) koaren(a).

(Sinadura).

II. eranskina
Eginkizunak

Ikastetxeko instalazioak zaintzea.

Instalazioak ireki eta ixtea.

Instalazioetarako sarbidea kontrolatzea.

Jendea aurrez aurre, telematikoki eta telefonoz artatzea eta informatzea.

Posta eta egunkariak jaso eta banatzen laguntzea.

Eraikineko mantentze lanez arduratzea (egiaztapenak, kontrolak, ordena, garbitasuna...) eta oinarrizko konponketak egitea.

Materiala lekualdatzen edota altzariak eta beste elementu batzuk birkokatzen laguntzea.

Lan osagarriak egitea (fotokopiak, materiala hornitzea, terminal informatikoak erabiltzea, etab.).

Komunikazioak banatzea.

Enpresei laguntzea eta haiekin lankidetzan aritzea.

Beste atezain lanpostu batzuk indartzea edota ordeztzea, zerbitzuaren beharrek direla eta beharrezkoa denean.

Hierarkian gorago daudenek agintzen dioten antzeko beste edozein zeregin egitea.